

ZIZUR NAGUSIKO UDALEKO KIROL INSTALAZIOEN FUNTZIONAMENDURAKO OINARRIZKO ARAUTEGIA. ARAUAK.

Zizur Nagusia, 2006ko urtarrilaren 20a

ZIZUR NAGUSIKO UDALEKO KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ETA FUNTZIONAMENDURAKO OINARRIZKO BARNE ARAUDIA

1.- XEDAPEN OROKORRAK	3
1.1.- Ohar orokorrak.....	3
1.2.- Udaleko Kirol Instalazioak	5
1.3.- Erabiltzaileak eta abonatuak.....	6
3.- INSTALAZIOEN ERABILPENA	11
3.1.- Instalazioak erreserbatzeko eta erabiltzeko Arau Orokorrak	11
3.2.- Instalazioak alokatzeko eta erabiltzeko Arau Orokorrak	12
3.3.- Erabilpenei buruz.....	13
4.- INSTALAZIOEI BURUZKO BERARIAZKO ARAUAK.....	15
4.1.- Ordutegia.....	15
4.2.- Udal igerilekuen erabilpena (uda - negua)	15
Kirol pista eta teniseko pista	18
4.4.- Bestelako kirol instalazioak.....	21
5.- KIROL ZERBITZUAREN ESKUMENEKOAK.- KIROL JARDUEREN ERABILTZAILEAREN ARAU OROKORRAK	27
5.1.- Instalazioak erreserbatzeko eta erabiltzeko Arau Orokorrak	27
5.2.- Istripu aseguruak	27
5.3.- Jarduerak emateko aldia.....	28
5.4.- Kirol Atalen berariazko arauak	28
5.4.1.- Haurren gaineko erantzukizuna	28
5.4.2.- Kirol materiala	28
5.4.3.- Publikoa.....	29
6.- ERABILTZAILE EDO ABONATU IZATEARI UZTEA (DIZIPLINA ARAUBIDEA.....	29
6.1.- Zergatiak	29
6.2.- Arau hauste arinak	30
6.3.- Arau hauste larriak	30
6.4.- Arau hauste oso larriak.....	31
6.5.- Zigorrek ezartzea.	31
6.6.- Ondorioak	32
6.7.- Hutsegiteak iraungitzea eta preskribatzea	33
6.7.1.- Hutsegiteen ondoriozko erantzukizuna iraungi egiten da:.....	33
6.7.2.- Hutsegiteen iraungitzea	33
6.8.- Prozedura	33
7.- XEDAPEN GEHIGARRIA.....	35
8.- AZKEN XEDAPENA	35

1.- XEDAPEN OROKORRAK

1.1.- Ohar orokorrak

Zizur Nagusiko Udalaren helburua udalerrian herritar guztien artean kirola bultzatzea eta sustatzea da.

Zizur Nagusiko Udalak kirolaren udal ondarea kudeatzea, administratzea, zaintzea, hobetzea eta ikuskatzea, besteak beste, “Ardoi” Kirol Patronatuaren esku utzi du. Patronatuaren eginkizun nagusia udalerriko herritar guztien artean kirola sustatzea eta gorputzaren kultura garatzea da, baita afizionatu eta herri mailako kirolak garatzea. Hartarako honako hauez baliatzen da:

- Gazteei kirola zer den erakutsi eta kirola egitera bultzatu, haien bizimoduaren atal bat izan dadin, gizartean parte hartzeko tresna izan dadin, eta gorputzarentzat eta buruarentzat osasun iturri izan dadin. Horretarako, kirol ekintzak antolatzen ditu.
- Udalerriko herritarrei kirolaren berri eman, kirol motak, bitartekoak eta pertsonentzat zein gizartearentzat dituen onurak azalduz.
- Herritarrei kirol arloko ekitaldi eta ikuskizunetara, eta hauekin lotura duten jarduera artistikoetara joatea erraztu eta bultzatu; bereziki, gazteenei eta adinekoenei.
- Udal programetan parte hartzen duten gazteei kirol taldeetan sartzen lagundu.
- Kirol ekitaldiak, ekintza fisikoak eta nazio eta nazioarteko kirol ikuskizunak antolatu, publiko guztiei zuzenduta.
- Horren erroturik ez dauden, edo sortu eta finkatu berri diren kirol jardueren eta jarduera fisikoen ezagupena eta praktika zabaldu eta sustatu.

Bistan denez, hori guztia aitzina eraman ahal izateko, udalarenak diren kirol instalazioak eta udalarenak ez izanagatik ere Zizur Nagusiko Udalari utzi zaizkion kirol instalazioak edo horretarako egoki daitezkeenak (publiko nahiz pribatuak) bultzatzeaz eta kudeatzeaz arduratu behar du. Ildo horretan, ekintza zehatzak garatu behar ditu honako hauei begira:

- Ikastetxeei eta legalki eraturako kirol talde eta klubei, eta herritar guztiei kirol instalazioak erabiltzea erraztea, ondoren aipatuko diren baldintzetan. Erabiltzaileek ordaindutakoak instalazioak behar bezala zaintzen lagunduko du, Kirol Erakundearen xedea gizarte sustapeneko baita, ez irabazi asmokoa.
- Kirol ikuskizunak antolatzea sustatu, goi mailako kirol praktika, kirol kultura eta instalazioen errentagarritasuna bultzatzeko.
- Kirol arlokoak ez diren jaialdiak, ikuskizunak... eta Udalak nahiz beste erakunde publikok eta, batez ere, pribatuk antolatutako bestelako ekintzak kirol instalazioetan antolatu.

Horrek berarekin dakar:

- Instalazioak zaintzea, konpontzea, mantentze lana egitea eta hobetzea.
- Instalazio gehiago eraikitzea, Udalak aldeztu aitzin baimena emanda.
- Jarduera osagarriak antolatu.
- Udalerrian kirolari ospea eman, eta ospe hori sendotu eta eutsi.

Aitzineko puntuetan esandako guztia ez da eragozpena izanen Udalak eta Patronatuak, zuzeneko nahiz zeharkako kudeaketaren bitartez, hainbat kirol zerbitzu eta jarduera, musika ekitaldi eta ikuskizun, dantza, kongresu nahiz jardunaldi antolatzeko.

Gainera, kontuan izan behar dugu Patronatuak gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun nahikoa duela bere helburuak betetzeko; beraz, aipatutakoak garatze aldera, honako ekintza hauek burutzen ahal ditu:

- Mota guztietako hitzarmenak formalizatu.
- Bere eskumenekoak diren instalazioen kudeaketarekin zerikusia duten kontratu mota guztiak egin, baita instalazio horiek zaintzea, mantentze lana egitea, eta hobetzea. Halaber, Udalari gomendatzea Patronatuaren iritziz garrantzitsuak diren inbertsioak egin ditzala.

Laburbilduz: Kirol Patronatuak abonatuaren esku paratzen du udal ondareko kirol instalazioetara sartzeko aukera, bai horietan antolatuko diren ekintzetan parte hartzeko, ekintza libreak egiteko, kirol entrenamenduak egiteko, lehiaketetarako nahiz bestelako kirol praktika edo kirol ikuskizun nahiz ikuskizun soziokultural egiteko.

1.2.- Udaleko Kirol Instalazioak

1.2.1.- Zizur Nagusiko Udala ondoren aipatzen diren instalazioen titularra da:

Kirol konplexua, honako hauek osatua: Kiroldegia, pilotaleku estaliak, Rokodromoa, Igerilekuak (estalia eta estali gabea), Saunak, Muskulazio aretoa, Gimnasioak eta Tennis pista.

“El Pinar de Ardoi” futbol zelaiak (belar artifizialekoa, lurrezkoa eta pista).

Halaber, Patronatuak, eskola orduez kanpo, ikastetxearen barneko kirol guneak kudeatuko ditu; hots: pista estalia eta estali gabekoak.

Halaber, eskola orduez kanpo, Zizurko BHIko Polikiroldegia kudeatuko du; kudeatzeko baldintzak hitzarmen baten barnean jasoko dira.

1.2.2.- Patronatuaren Zuzendaritza Batzordeak Kirol Koordinatzailea izendatuko du, eta berau izanen da Kirol Instalazioei buruz aipatu Batzordeak hartuko dituen erabakiak betearaziko dituen. Halaber, bere gain hartuko du Kirol Instalazioen kudeaketa.

1.2.3.- Kirol Instalazioen publizitate estatikoaren ustiapenaren eskubideak Ardoi Kirol Patronatuari dagozkio. Honek beretzat gordetzen du eskubide horiek gauzatzea.

1.2.4.- Kudeaketa moduak: Zizur Nagusiko Udalak, instalazioen titularrak, kirol instalazioen eta zerbitzuen kudeaketa nolakoa izanen den erabakitzeko ahalmena izanen du. Kudeaketa zuzeneko; alegia, zerbitzuak Udalak berak nahiz “Ardoi” Kirol Patronatuak emanen ditu, nahiz mistoa edo zeharkakoa izan dateke; hau da, aipatu zerbitzuak, publikoak izanik ere, bere osotasunean edo partzialki pertsona fisikoek nahiz juridikoek ematen dituztenean, betiere kudeaketa lehiaketa publiko bitartez lortzen denean.

1.3.- Erabiltzaileak eta abonatuak.

1.3.1 Erabiltzailea izateko. Erabiltzaileak izanen dira udal instalazioetara edo kiroldegira unean-unean joaten diren pertsonak, taldeak edo erakundeak, bai kirol gune horiek alokairuan edo lagapenean dituztenean, bai instalazioko guneak partikularki erabiltzen direnean.

1.3.2.- Instalazioa adin txikiko batek erabili behar duenean, horrek egindakoaren arduraren bere gurasoena edo legezko tutoreena izanen da.

1.3.3.- Ikasleak izanen dira udaleko kirol instalazioetara bertan eskaintzen den kirol zerbitzuren batean (ikastaroak, programak, eta abar) parte hartzera joaten diren pertsonak, baita udalak unean-unean antolatzen duen kirol jardueraren batean izena ematen dutenak ere.

1.3.4.- Udaleko Kirol Instalazioen abonua eskatzeko, eta, beraz, abonatu izateko eskubidea dute.

Zizur Nagusian erroldatua dagoen oro, betiere, dagokion prezio publikoa ordainduta.

Behin-behineko abonatuak izan daitezke: Zizur Nagusiko ikastetxeetan (eskola nahiz institutu) ikasten duten haur nahiz gazte guztiak (senideengana zabal daiteke).

Zizurko Zendearen erroldatua dagoen oro, betiere, dagokion kostua ordainduta.

Zizurko Zendearen erroldaturik egon gabe, bertako lantegiren batean lan egiten duen oro (senideengana zabal daiteke); aldeztu horren egiaztagiria aurkeztuta. Betiere, aipatu

enpresek Zizur Nagusiko Udalaren urteko programekin lotura duten ikuskizunak edo kirol jardunbidea sustatzen edo babesten laguntzen badute, eta interesdunek kostua ordainduta. Beste udalerrri batean kokatuta dauden enpresek Kirol Patronatuaren eta/edo Ardoi Klubaren ekintzak babesten badituzte, abonua izendunak jasoko dituzte: 1.000na €-ko bana, 3.000na €-ko 4na, edo 3 urtez emandako 1.000na €-ko 4na. Abonua horiek abonua onuradunaren kontura izanen dira.

Salbuespenez, eskubide hori Zizurren erroldatuta ez dagoen, baina Ardoi Klubeko taldeetan dabilen norbaiti eman ahal izanen zaio, betiere, horren egiaztagiria aurkeztuta, eta urteko kostua ordainduta.

Zizur Nagusiaren hurbileko udalerrietako herritarren eskaerak aintzat hartu ahal izanen dira, aipatu udalerrietan (Otazu, Belaskoain, eta abar) halako zerbitzurik ez badute. Betiere, horretarako lekurik baldin badago, eta urteko kostua ordainduta.

Senideak (gurasoak eta seme-alabak) aldi baterako abonatuarekin bizi badira, aipatu senideek abonua eska dezakete beraientzat, dagokien urteko kostua ordainduta. Egoera berean egonen dira ezkontideak edo bikoteak; halakoetan, Zizurren erroldatuta dagoenak abonatu ere izan beharko du. Eskaera horiek sei hilean behin berrituko dira, eta interesdunek kostua ordaindu beharko dute.

1.3.4. atalean jasotako balizko guztiek abonua eskaera justifikatuko duen dokumentazioa egiaztatu beharko dute urtero.

1.3.5.- Eszedentzia dauden abonatuak: hainbat arrazoi tarteko (atzerria ikastea, lanpostua behin-behineko lekuz aldatzea, eta abar), denbora batez Zizur utzi beharrean egon daitezkeen abonatuak eszedentzia eska dezakete.

Egoera hori lortzeko, abonatuak, egoera justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu ondoren, abonatu txartela itzuli beharko du. Urrats hori eman ondoren, "eszedentzia egoeran" dagoela ulertuko da. Horrenbestez, ez du urteko kuota ordaindu beharko, egoerak irauten duen bitartean.

Halaber, lehengo egoerara itzultzen denean, ez du "kuota gehigarria" ordaindu behar, baina eszedentzia bukatu eta dagokion sei hileko osoa ordaindu beharko du, hilabetea edozein dela ere.

Eszedentzia eragin duen arrazoiak bukatuta, eta ondorengo sei hilekoan berriro ere sartzea eskatzen ez badu, abonatuari baja emanen zaio.

2.- ERABILTZAILAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

2.1.- Erabiltzaileen eskubideak

2.1.1.- Kirol Patronatua eta horren instalazioetan beren zerbitzua ematen duten langile guztien tratua begirunezkoa eta adeitasunezkoa izatea.

2.1.2.- Ezarrita dauden erabilpen arauen eta indarrean dauden tarifen arabera, Kirol Patronatuak eta horren Instalazioek ematen dituzten zerbitzu guztiak jasotzeko eskubidea.

2.1.3.- Instalazioak programan edo kontratatutako alokairu orduetan erabiltzeko eskubidea, nahiz eta, Kirol Patronatuak, programazioaren arabera, ezarritako baldintzak aldatzerik edo bertan behera uzterik izanen duen, betiere, erabiltzaileei horren berri hogeita lau ordu lehenago emanda, justifikaturiko kasuetan izan ezik.

2.1.4.- Arautegi honetan aurreikusten diren baldintzetan, zerbitzu eta gune osagarriak erabiltzeko eskubidea; besteak beste, aldagelak eta komunak.

2.1.5.- Kirol Instalazioak, altzariak eta materiala erabilpen egoera ezin hobean erabiltzeko eskubidea.

2.1.6.- Instalazioetan nahiz Udaleko Kirol Zerbitzuaren bulegoan dauden erreklamazio orrietan egoki iruditzen zaizkion kexuak, erreklamazioak edo iradokizunak idatziz egiteko eskubidea.

2.2.- Erabiltzaileen betebeharrak.

2.2.1.- Instalazioak, materiala eta altzariak behar bezala erabiltzea, eta instalazioei edo gainerako erabiltzaileen osasunari eta eskubideei egin dakiekeen kaltea saihestea.

2.2.2.- Gainerako erabiltzaileei eta instalazioetako langileei zor zaien errespetua zaintzea, eta, uneoro, kirol instalazioetako langileen esanei kasu egitea, hauen eginkizuna baita kiroldegian eta aretoetan garatzen diren jarduera guztiak ikuskatzea.

2.2.3.- Instalazioetara kirol jantzi osoa eramatea. Bereziki zainduko da zoladura bakoitzari dagokion oinetakoa erabiltzea. Arau hori bera ezarriko da, orobat, pistetan nahiz atari zabalean egiten diren instalazioetan.

2.2.4.- Aukeratutako zerbitzuari edo jarduerari dagokion prezio publikoa ordaintzea ezarriko diren epeen barruan. Aipatu epe horiek egoki irizten diren hedabideetan emanen dira jakitera behar besteko denborarekin. Nolanahi ere, beti adieraziko dira Kirol Instalazioen iragarki tauletan.

2.2.5.- Erabiltzailea dela egiaztatzen duen txartela edo dokumentua erakustea. Aipatu txartela edo dokumentua ezin izanen dio beste inori utzi edo besterendu.

2.2.6.- Kirol guneen alokairurako ezarritako ordutegia betetzea.

2.2.7.- Erabiltzaileak parte hartu duen edo izena emanda dagoen ekintza bukatuta, instalazioak utzi beharko ditu. Aldageletara sartu ahal izanen da dagokion jardueraren ordainagirian jasota dagoen hasiera ordua baino hamabost minutu lehenago. Kirol jarduera bukatu eta gehienez ere hogeita hamar minutu geroago irtengo da.

2.2.8.- Kirol instalazioetan ezin da erre, ezta edari alkoholdunik edan ere, baimendutako guneeetan izan ezik (taberna-kafetegia).

2.2.9.- Aldageletako armairuetatik kanpo ez da ezer utziko. Halaber, ez dira dutxak nahiz aldageletako beste espaziorik arrokekin, esku-oihalekin eta halakoekin okupatuko. Armairuak jarduera egin bitartean soilik okupatu ahal izanen dira. Instalazioak ixteko unean kiroldegiko langileek armairuak irekiko dituzte. Kirol Patronatua ez da arduratuko instalazioetan galdutako gauzez.

2.2.10.- Kirol Patronatuak ez du erabiltzailearenganako erantzukizunik izanen honako balizko hauetan: erabiltzaileak arau hauek ez betetzearen ondorioz sortutako istripu edo kalteetan, beste erabiltzaile batek portaera arduragabea duenean, edo instalazioak, ekipamenduak eta zerbitzuak gaizki erabiltzen dituenean.

2.2.11.- Ardoi Kirol Patronatuak, kirol zerbitzu horrek programatutako edozein jarduerari heldu aitzin, erabiltzaileei alde aurretik mediku azterketa egitea gomendatzen die. Beharrezkoa ikusiko balu, aipatu azterketa exijitzeko eskubidea izanen luke.

2.2.12.- Abonatuak bere gain hartuko du bere egoera fisikoa eta kiroldegiak ematen dituen zerbitzuak erabiltzeko gaitasun fisikoa.

3.- INSTALAZIOAK ERABILTZEKO

3.1.- Instalazioak gordetzeko eta erabiltzeko arau orokorrak.

3.1.1.- Denboraldi bakoitzerako eskaera epea behar besteko denborarekin jakitera emanen da Kirol Patronatuak egoki irizten dien hedabideetan, interesa duten guztiek horren berri izateko. Nolanahi ere, aipatu epeak instalazio bakoitzaren iragarki tauletan paratuko dira.

3.1.2.- Edozein kirol unitate alokatzeko eskaera eta ordainketa erabiltzaileek berek egingen dute, Ardoi Kirol Patronatuak ezarriko dituen baldintzetan eta aurreikusitako epeetan.

3.1.3.- Erabilpen ordenarako irizpideak honako hauek dira:

a) Kirol arloko Udal Programa: arlo guztietan (haurrentzako nahiz helduentzako ikastaroak, kanpainak eta txapelketak).

b) Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeak: heziketa fisikoko programa lan dezaten.

c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Institutua: heziketa fisikoko beren programaren barnean jarduera puntualak garatzeko. Pabiloian izan ezik; honetan erabilpena hitzarmenak arautzen du.

d) Zizur Nagusiko "Ardoi" kirol kluba: Kirol Eskolak eta Taldeak.

e) Herriko taldeak: kirola egiteko instalazioak behar dituzten herriko talde edo kolektibo guztiak. Abonatuak lehentasuna izanen dute.

f) Beste udalerrietako kirol klubak, Federazioak, Gimnasioak eta partikularrak (eskualdekoek lehentasuna izanen dute).

Aitzineko f) atal horren barneko eskaerei aurreko ataletako eskaerak bete ondoren erantzungo zaie. Alegia, f) ataleko kolektiboek kirol instalazioak erabil ditzakete Patronatuak duen erregimenaren baitan (alokatuta, utzita, eta abar), betiere, Zizur Nagusiko herritarren kirol eskaera beteta dagoenean.

Jarduera horiekiko konpromisoa puntuala (ekintza zehatz baterako) izanen da, eta udalerriko kirol programa arriskuan jar dezakeen, eta abonatuak instalazioak erabiltzeko duten eskubidea neurri batean hipoteka dezakeen lotura saihesteko ahalegina egingen da.

b, c, d, e eta f ataletako balizko guztiak instalazioak uzteko araei atxikita daude.

3.1.4.- Oporraldien aitzinetik (Eguberriak, Inauteriak eta Aste Santua), Kirol Atalek edo kirol klubek Kirol Zerbitzuari jakinarazi behar diote aipatu oporraldi horietan zein izanen den bakoitzaren entrenamendu ordutegia. Betiere, behar den denborarekin.

Bazkideen erabilpen libreko orduak atezainak kontrolatuko du irizpide hauei jarraituz:

Pista gordetzeko eskaera egunean bertan egingen da; betiere, eskaera egingen duen taldeak partaide guztien txartela aurkeztuta, eta partaideak kirol jarduera hori gauzatzeko behar adina badira.

Patronatuaren Batzordeak instalazioen erabilpenak bateragarriak izan daitezzen zainduko du, instalazioko arduradunen bitartez.

3.2.- Instalazioak puntualki alokatzeko eta erabiltzeko Arau Orokorrak.

3.2.1.- Kirol Zerbitzuak partikularrei alokatzen dien kirol unitate guztiak (entrenamenduetatik, klaseetatik nahiz lehiaketetatik libre daudenak) dagokien prezio publikoa ordainduta erabili ahal izanen dira.

3.2.2.- Kirol unitateak modu finkoan alokatu nahi dutenek Kirol Zerbitzuaren bulegoetan egin beharko dute eskaera. Erabilpen horiek instalazioak uzteko araei atxikita daude.

3.2.3.- Erabilpen puntualak: unean-unean, Udalak, Kirol Patronatuaren bitartez, instalazioak (soilik kiroldegikoak) utzi edo alokatu ahal izanen dizkie kanpoko erakunde, elkarte edo enpresei. Erabilpen horiek instalazioak uzteko araei atxikita daude.

3.2. ataleko balizko guztiak instalazioak uzteko araei atxikita daude.

3.3.- Erabilpenei dagokienez:

3.3.1. Instalazioetara sartzea eta abonatuaren identifikazioa Instalazioko berariazko araeu agindu bezala egingen da. Abonatuak instalazioetara sartzen den bakoitzean identifikatu beharko du.

3.3.2. Patronatuak prestatuko dituen “Oinarrizko Erabilpen Arauak” bete beharko dituzte erabiltzaileek beti; izan ere, senak agintzen dituenak dira, eta, horien bitartez, herritarrak

sentsibilizatu nahi dira ondasun publiko bat errespetatu dezaten. Higiene eta osasun arloko aholkuak dira, kirola egiteko jarraibideak.

3.3.3. Gune bakoitzak berariazko “Oinarrizko Arauak” izanen ditu, gune bakoitzaren berezitasunetara egokituak.

3.3.4. Patronatuaren Batzordeak Arau hauek hausten dituenari instalazioetara sartzeko eskubidea kendu ahal izanen dio aldi baterako nahiz behin betiko, Arautegi honetako 6. atalean jasotakoa betez.

3.3.5. kirol instalazioen erabilpen libreak, adin txikikoekin dauden gurasoak edo helduak arduratuko dira haiez edozein gunetan.

3.3.6. Programatu gabeko jardueretan, 6 urtez beherako abonatuarekin dagoen helduak hiritar txartela eskatu beharko du. Aipatu txartela fidantza batekin kargatuta egonen da; alegia, hitzartutako jardueretan haurrari aldatzen laguntzearen instalazioetan sartzeko behar besteko kreditua. 20 minututik gora egonez gero, dagokion sarrera ordaindu beharko du, eta kopuru hori txartelitik deskontatuko da.

3.3.7. Erabiltzaile guztiek bete beharko dituzte instalazioetako langileek adierazitako erabilpenei buruzko jarraibide guztiak.

3.3.8. Instalazioen kudeaketaren inguruan egon daitezkeen kexa guztiak Kirol Patronatuaren bulegoetan eginen dira, aipatu kexek balioa izanen badute. Atezainari adierazitako kexek ez dute baliorik izanen.

3.3.9. Zizur Nagusiko Udalak ez du bere gain hartuko erabiltzaileei lapurtutakoen, edo erabiltzaileek galdutakoen ardura.

3.3.10. Zizur Nagusiko Udalak ez du bere gain hartuko erabiltzaileek izan ditzaketen istripuen ardura, Kirol Instalazioen akatsen ondorioz sortutako istripuen ardura izan ezik.

3.3.11. Udalak, Kirol Patronatuaren bitartez, instalazioak (soilik kiroldegikoak) utzi edo alokatu ahal izanen dizkie kanpoko erakunde, elkarte edo enpresei. Erabilpen horiek instalazioak uzteko arauak atxikita daude.

3.3.12. Udalak, Kirol Patronatuaren bitartez, instalazioak erabiltzaileek jardura libreak erabiltzeko gorde ahal izanen ditu, egoki irizten dionean.

4.- INSTALAZIOEN BERARIAZKO ARAUAK

4.1.- Orduetgia

Instalazio bakoitzak berariazko argibideak izanen ditu, honako hauen inguruko xehetasunak jasotzeko: instalazioak irekitzeko eta ixteko orduak, jendeari harrera egiteko orduak, eta erabiltzaileentzat jakingarri izan daitezkeen beste edozein argibide, instalazio bakoitzaren ezaugarriak, kirol unitateari, jarduerari, kokapenei, eta beste hainbat arlori buruzkoa.

Aipatu ordutegiak minimoak dira, eta, egoerak hala eskatzen duenean, luza daitezke, udalerriko beste edozein establezimenduren ordutegia bezalaxe; hartarako, esleipendunari ordutegia aldatzea xedatzen duen Alkatetzaren Ebazpena jakinaraziko zaio.

4.2.- Udal igerilekuen erabilera (uda – negua)

4.2.1.- Arau orokorrak:

1. Ezin izanen dute igerilekua erabili eritasun infekto-kutsakorrek, zauri irekiak, edo halakorik dutenek. Instalazioko langileek erabiltzailearen batek halako infekziorik izan dezakeelako susmo argiak izanez gero, igerilekura sartu ahal izateko medikuaren baimen idatzia aurkeztea eska diezaioke erabiltzaileari.
2. Debekatuta dago uretara sartzea mugimenduarekin aska daitezkeen, edo gainerako erabiltzaileei min eman diezaieketen gauzekin, besteak beste: urkilak, eraztunak, eskumuturrekoak, erlojuak, eta kateak.
3. Ikastaro, eskola edo txapelketetan ari direnekin batera datozen senideak edo laguntzaileak ezin dira igerilekuko aldageletan eta igerilekuaren hondartzetan sartu, sei urtez beherakoekin datozenak izan ezik. Halakoetan, heldu bakar batek lagundu ahal izanen die aldageletan. Hala ere, sekula ez dira igerilekuaren hondartzetan sartuko.
4. Uretara sartu aitzin, derrigorrezkoa da dutxatzea. Horrek esan nahi du eguzki kremak eta makillajeak garbitu behar direla; horretarako, beharrezkoa denean, xaboia erabiliko da (aldageletako dutxetan).
5. Eremu hezeetan (igerilekuaren hondartzetan, igerilekuaren inguruan, aldageletan eta dutxetan) ez da sekula lasterka egin behar. Halaber, ez dira istripua sor dezaketenik, edo gainerako erabiltzaileei traba eragin diezaieketenik egingo.
6. Bainatzeko, derrigorrezkoa da txanoa erabiltzea, eta igerilekuan soilik erabiliko diren txankletak erabiltzea (txankletak ez dira kalean ere erabiltzekoak izango).
7. Erabiltzaileek instalazioetako langileek esandakoa beteko dute beti; bereziki, sorosleek segurtasunaren inguruan esandakoak.
8. Igerilekuan programatutako jarduerak alda daitezke. Ahal den neurrian, aldaketa horien berri emanen zaie erabiltzaileei behar den denborarekin.
9. Ez zaie 10 urtez beherako haurrei sartzeko instalazioaren barruan haiez arduratuko den 18 urtez gorako pertsona nagusi batekin ez badaude.
10. Debekatuta dago animaliak sartzea.
11. Igerilekura sartzeko derrigorrezkoa da igerilekurako arropa eta oinetako egokiak janztea.

12. Ezin izango da arropaz aldatu komunetan edo bainugeletan.

13. Ezin izango dira hegatsak edo gainerako erabiltzaileak molesta ditzaketen bestelako materialik erabili publikoarentzat jarrita dauden kaleetan, Patronatuak hainbat eremutan eta ordutegiren barnean horretarako baimena eman ezean.

14. Norberari nahiz beste erabiltzaileei arriskua ekar diezaieketen saltoak eta akrobaziak.

15. Arau horiek ez betetzeak erabiltzailea kanporatzea ekar dezake.

4.2.2.- Udako igerilekuetarako arauak:

Debekatuta dago:

1. Igerileku barrutian beirazko gauzak sartzea.
2. Igerileku barrutira kaleko arrokekin eta oinetakoekin sartzea.
3. Belarretan jatea.
4. Askaldegian jolastea.
5. Igerileku barrutian irrati-kaseterik sartzea.
6. Ile luze bildu gabearekin bainatzea.
7. Haurren igerilekuetan 7 urtez gorako haurrak bainatzea.
8. Igerilekura sartu aitzin, kanpoan erabili diren bainu-jantzi bermudekin bainatzea.
9. Igeriketa ontzietako hondartzak eta berdegunea bereizten dituen hesia salto egitea.
10. Instalazioen perimetroa mugatzen duen hesia salto egitea instalazioetara sartzeko.
11. Norberari nahiz beste erabiltzaileei arriskua ekar diezaieketen saltoak eta akrobaziak.

10. puntuan xedatutakoari dagokionez, halakorik egin lezakeen ez-abonatuari isuna ezarriko zaio, bidezkoa ez den sartzea egiteagatik. Abonatuari, berriz, sartzeko eskubidea kenduko zaio, 6. kapituluaren xedatutako epeagatik. Huts bera behin baino gehiagotan egindakoa bada, arautegi honetako 6. puntuan xedatutakoa ezarriko zaio.

Derrigorrezkoa da:

1. Instalazioetan dauden bitartean, sarrera txartela gordetzea. Instalazioko langileak aipatu sarrera txartela eskatu eta erakusten ez bazaio, erabiltzaileak berehalakoan utzi beharko ditu instalazioak.
2. Bainu-jantzia aldageletan janzteia eta erantztea.
3. Higiene arrazoiak tarteko, komunak eta dutxak behar bezala erabiltzea.
4. Instalazioak garbi edukitzea.

Terrazak

1. Terrazak itzal eta atsedean eremuak dira. Erabiltzaileek nahierara erabil ditzakete. Patronatuak egoki irizten dionean, eremu hori bere jarduerak garatzeko erabili ahal izanen du (jolasak, eta abar). Pertsonaren batek okupaturik ez duen aulki edo mahai guztiak libretzat joko dira. Ez da okupatutzat joko horietan arroparik edo bestelako gauzarik utzi bada ere.

2. Ez da onartuko eremu horretan jatea.

Kirol pista eta tenis pista

1. Ez dira horietan pisten egoera kalte dezaketen jokorik egingen.

2. Pistak erabiltzen dituztenek ahaleginak egingen dituzte bertan direnek txandaka erabil ditzaten.

3. Pistak gordetzeko eskaera, pista erabili nahi den egunaren bezperako 20:00ak baino lehen egin beharko da.

4. Pistak 18:00etatik aitzinat erabiltzeko, 16 urtez gorakoek izanen dute lehentasuna; betiere, Patronatuak antolatutako ekintzaren baten barnean ez bada.

4.3.1. Neguko igerilekuetarako arauak (estalia eta hidromasajea)

1. Igerilekua igeriketa egiteko soilik erabiliko da. Halaber, hidromasajeko bainua hidroterapiarako izanen da. Ez da gomendagarria 12 minutu baino gehiago egotea hidromasajea.

2. Bainu txanoa derrigorrezkoa da, bai igerilekurako, baita hidromasajerako ere. Txanorik ez duen bazkideak sorosleari eska diezaioke.

3. Besoetako haurrek haientzat propio antolatutako ikastaroetan soilik erabil dezakete hidromasajea; halakoetan, igerilekuko monitoreek/sorosleek adierazitako arropa eraman beharko dute jantzita.

4. Derrigorrezkoa da igerilekuan soilik erabiliko diren txankletak erabiltzea.

5. Igeri egiteko betaurrekoak eta belarrietako tapoiak erabiltzea gomendatzen da.

6. Ezin izango dira hegatsak edo gainerako erabiltzaileak molesta ditzaketen bestelako materialik erabili publikoarentzat jarrita dauden kaleetan.

7. Ez da gomendagarria 18 urtez beherakoek hidromasaje ontzian hidroterapia egitea, ezta haurdun dauden emakumeek ere.

8. Debekatuta dago bainu eremuan jantzita edo kaleko oinetakoekin sartzea.

9. Aldageletan ez dira arropak edo bestelako gauzak utziko; horretarako armairuak erabiliko dira. Kirol Patronatuak ez du bere gain hartuko instalazioetan, edozein arrazoi tarteko, gal edo honda daitezkeen gauzen erantzukizuna.

10. Debekatuta dago igerilekuan edo aldageletan jatea edo bertara edariak nahiz bestelako ontziak eramatea, eta txiklea jenez bainatzea. Beirazko ontziak eta latak ere ez daude onartuta, erabilpen higienikokoak izanagatik ere.

11. Igerilekua kaleen erabilpena zehazteko egunero eginen den koadrante baten bitartez antolatuko da, eta ikastetxeen, klubuen, elkarteen eta gainerako erakunderen premien arabera landuko da. Hainbat kale erabilpen librerako utziko dira.

12. Ezein erakundek ez du gordetako kaleen gaineko eskusibotasunik.

13. Egun eta ordu berean igerilekuari hainbat erabilpen eman behar bazaio, aldeei adostasunera iristea eskatuko zaie, ekintzaren txanda aldatuz. Adostasunera iritsi ezean, Udal Kirol Zerbitzuak ebatziko du egindako eskaeren arabera.

14. Sorosleak baimena du kaleen ordena aldatzeko, segurtasun arrazoiak tarteko edota instalazioak funtzionamendu hobea izan dezan.

15. Klubetako edo erakundeetako irakasleak, entrenatzaileak eta monitoreak dira ikasleen zuzeneko arduradunak, instalazioetara sartzen direnetik irteten diren arte. Ez dituzte ikasleak sekula bakarrik utziko. Klubak edo erakundeak izanen dira erantzule subsidiarioak.

16. Irakasleak klasea edo entrenamendua hasi baino 15 minutu lehenago sartuko dira aldageletan. Ezin izanen dira igerilekuan sartu beren monitorea, entrenatzailea edo irakaslea bertan ez dagoen bitartean.

17. Nolanahi ere, soroslearen gomendioek lehentasuna izanen dute.

11., 12. eta 13. ataletako balizko guztiak instalazioak uzteko arauari atxikita daude.

4.3.2. Saunak:

1. Hemezortzi (18) urtez gorako abonatuak, nahi izanez gero, instalazio hori erabil dezakete, aldez aitzin dagokion tasa ordainduta.

2. Sauna bakoitzean gehienez ere lau lagun egon daitezke.

3. Sauna erabili aitzin, ur beroarekin eta xaboiarekin dutxatzea gomendatzen da.

4. garrantzitsua da saunan lehor sartzea.

5. Sauna barrura arroparik eta oinetakorik gabe sartu behar da, baita txankletarik gabe ere. Bi esku-oihal erabiliko dira: esertzeko edo etzateko, bata, eta dutxatu ondorenerako, bestea.

6. Debekaturik dago eremu horretan norbere garbitasuna egitea.

7. Sauna erabiltzeko jarrita dauden gomendioei erreparatzea aholkatzen dugu.

4.4.- Bestelako kirol instalazioak

4.4.1. Orokorrean:

1. Pista, espazioen erabilpena zehazteko egunero eginen den koadrante baten bitartez antolatuko da, eta ikastetxeen, klubuen, elkarten eta gainerako erakunderen eta abonaturen eskarien arabera landuko da.
2. Ezein erakundek ez du gordetako espazioen gaineko eskusibotasunik.
3. Egun eta ordu berean instalazioen bati hainbat erabilpen eman behar bazaio, aldeei adostasunera iristea eskatuko zaie, ekintzaren txanda aldatuz. Adostasunera iritsi ezean, Udal Kirol Zerbitzuak ebatziko du egindako eskaeren arabera.
4. Klubetako edo erakundeetako irakasleak, entrenatzaileak eta monitoreak dira ikasleen zuzeneko arduradunak, instalazioetara sartzen direnetik irteten diren arte. Ez dituzte ikasleak sekula bakarrik utziko. Klubak edo erakundeak izanen dira erantzule subsidiarioak.
5. Ikasleak klasea edo entrenamendua hasi baino 15 minutu lehenago sartuko dira aldageletan. Ezin izanen dira jarduera garatuko duten eremuan sartu beren monitoreak, entrenatzailea edo irakaslea bertan ez dagoen bitartean.
6. Pabiloia erabili nahi duten kirolariek atezainari aldagela eskatu beharko diote. Gimnasioen erabiltzaileek gimnasioen ondoko korridoretan dauden aldagelak erabiliko dituzte.
7. Aldagelak erabiliko dituzten hurrek aski autonomia izan beharko dute bakarrik aldatzeko, eta arauak betetzeko.
8. Erabiltzaile guztiek edozein koloreko gomazko zola biguneko zapatilak eraman beharko dituzte (zolatuz azterna uzten duten zapatilak izan ezik). Instalazioko langileak zapatilak erabiltzea eska dezake. Arau hori hausteak instalazioa erabiltzeko debekua ekar diezaioke erabiltzaileari; halakoetan, ez du inolako erreklamazio eskubiderik izanen.
9. Aldageletan partidetan edo entrenamenduetan parte hartuko dutenak soilik sartu ahal izanen dira (jokalaria, entrenatzaileak, ordezkariek, laguntzaileak eta zuzendariak). Partidetan edo entrenamenduetan parte hartuko dutenekin doazen gurasoak edo lagunak ezein kasutan ezin izanen dute aldageletan sartu.
10. Debekatuta dago aldageletan baloiarekin beroketa ariketak egitea.
11. Debekatuta dago aldageletan eta kirol guneetan hurren aulkitxoak edo kotxetxoak sartzea.
12. Instalazioetan kalteren bat nahita eragiten duenak konponketaren gastuak edo, beharrezkoa balitz, berria erostea sortzen dituen gastuak bere gain hartuko ditu.
13. Ez da onartuko begirunearen eta edukazio arauen kontrako egitaterik.
14. Debekatuta dago erretzea, edari alkoholodunak edatea eta gai toxikoak hartzea.

15. Debekatuta dago kirola kamisetarik gabe egitea.

16. Kirol Patronatuarekin hitzarmena duten talde edo klubei ez zaie entrenamendua egiten utziko entrenatzailea ez badago.

17. Entrenatzaileak eta ordezkariak:

- Instalazioetan dauden bitartean, beraiek izanen dira beren ekipoen, abonatuena eta alokatutakoen erantzuleak, esandakoen eta egindakoen erantzuleak, bai arbitroarenganako, aurkariarenganako eta publikoarenganako, baita instalazioekiko eta bertan diren langileenganako ere.
- Entrenamenduetan eta partidetan kirol oinetako egokiak erabili behar dituzte, jokalariek bezalaxe. Halakorik ez balute, oinetakoetarako zorroak emanen zaizkie.
- Taldeko kide guztien portaeraren erantzuleak izanen dira, instalazioan sartzen direnetik irteten diren arte.
- Beren ardura izanen da taldekideen arbitroenganako, aurkarienganako, publikoarenganako, instalazioekiko eta langileenganako jarrera zuzena eta kiroltasunezkoa izatea.

Halakoa ez bada, Kirol Patronatuak arautegi honetako 6. puntua ezartzeko eskubidea izanen du.

18. Debekatuta dago jarduera fisikoarekin lotura ez duten edariak edo jatekoak sartzea.

19. Beste edozein erabiltzaileri bezalaxe, arbitroei ere instalazioko arauak ezarriko zaizkie.

20. Publikoa:

- Harmailetara sartzeko, horretarako propio dauden sarbideak erabiliko dira beti.
- Eskailerek eta korridoreek libre egon behar dute beti, behar bezala erabil daitezten.
- Publikorako eremuan debekatuta dago lasterka egitea edo salto egitea.
- Segurtasun arrazoiak tarteko, erabat debekatuta dago instalazioetan kaltea sor dezaketen gauzak, beirazko ontziak, poteak, petardoak edo antzekoak sartzea. Sarreran halakorik daramanari horiek kendu ahal izanen zaizkio, eta ez dute horiek atzera jasotzeko eskubiderik izanen.
- Patinak, patineteak eta antzekoak erabiltzea debekatuta dago, kirol jarduerak horiek erabiltzea eskatzen ez badu behintzat.
- Debekatuta dago pistara sartzea.

Horiek bete ezean, Patronatuak erantzukizunak eska diezazkieke (baita 6. ataleko neurriak ezarri ere) pistaren erabilpena duten taldeei edo sailei, bai Patronatukoak izan, bai abonatuak edo alokairuan daudenak izan.

21. Kirol Patronatuak ez ditu bere gain hartuko:

a) Instalazioak erabiltzen diren bitartean, erabiltzaileen gauzak galtzea, hondatzea edo lapurreta.

b) Instalazioak erabiltzean erabiltzaileak izan ditzakeen lesioak edo istripuak (instalazioen akatsengatik sortutakoak izan ezik).

22. Klubetako edo erakundeetako irakasleak, entrenatzaileak eta monitoreak dira ikasleen zuzeneko arduradunak, instalazioetara sartzen direnetik irteten diren arte. Ez dituzte ikasleak sekula bakarrik utziko. Klubak edo erakundeak izanen dira erantzule subsidiarioak.

4.4.2. Orokorren osagarriak

4.4.2.1. Muskulazio aretoa

1. Abonatuak, hala nahi dutenek, instalazioa erabili ahal izanen dute, aldez aitzin kuota ordainduta.

2. Bertan monitorea egonen da, Entrenamendu Planaren eta makinaren eta aparatuen erabilpenaren inguruan erabiltzaileak gainbegiratu, kontrolatu eta aholkua emateko. Monitoreak aurretiaz zehaztutako ordutegiaren barnean egiten du bere lana. Aholkularitza mota kirolari bakoitzaren mailaren eta interesaren arabera izanen da.

Ildo horretan, erabiltzaile bakoitzak bere Lan Pertsonalizatua jasoko duen fitxa izanen du.

3. Erabiltzaileek, uneoro, berriazko materiala erabiltzeari eta jasotzeari buruz monitorea arduradunak esaten duena beteko dute. Monitorea gimnasioan ez badago, erabiltzaileek paratuta dauden txarteletan adierazitakoa beteko dute. Hala egin ezean, Kirol Patronatuaren Batzordeak zigorra ezarriko die, arautegi honetako 6. puntua betez.

4. Erabilpena librea da, egunei eta orduei dagokienez. Hala ere, erabilpena instalazioko monitorea arduradunarekin aldez aitzinetik harremanetan jarri diren eta honen gainbegira duten abonatuak mugatuta egonen da. Neurri honekin honako hauek lortu nahi dira:

a) Gerta daitezkeen lesioak, makinak eta aparatuek gaizki erabiltzeagatik.

b) Makinak eta aparatuek hondatzea, behar bezala erabili ez direlako.

5. Monitorearen ordutegia zehaztuta, monitoreak jarraian aipatzen diren hauek beteko ditu:

_ Fitxa pertsonalizatua kontrolatu, eta aholkua eman. Alegia, erabiltzaileei ariketa guztiak zertan diren azaldu, zalantzak argitu, eta ariketak behar bezala egiten direla ziurtatu.

_ Erabiltzaile gehiago egotea ahalbidetu.

_ Makinak eta aparatuek egoera honean egotea zaindu.

_ Erabiltzaile eta talde kopuruaren kontrola (altak eta bajak).

4.4.2.2. Pilotalekuak:

1. Asteartero, arratsaldeko 20:00etatik aitzin, kiroldegiaren atezaindegian, pilotalekuak hurrengo asterako gordetzeko eskaera egin daiteke.

2. Talde bakoitzak egun bat eta ordu bat gorde dezake.
3. Eskola ordutegian, ez dira orduak gordeko; ez Patronatuko bulegoetan, ezta kiroldegiko atezaindegian ere. Ordutegi horietan jokatu asmoa duten abonatuak instalazioetara joan, eta atezainari galdetu beharko diote aukerarik ba ote dagoen.
4. Instalazioa gordeta eduki, eta agertzen ez badira, eta joanen ez direla jakinarazten ez badute, zigorra izanen dute (hori gertatzen den lehenengoan, astebete jokatu gabe, bigarrenean, bi aste, eta horrela hurrenez hurren).
5. Pilotalekuak espazioaren erabilpena zehazteko egunero eginen den koadrante baten bitartez antolatuko da, eta ikastetxeen, klubuen, elkarten eta gainerako erakunderen eta abonaturen premien arabera landuko da.
6. Ezein erakundek ez du gordetako espazioen gaineko eskusibotasunik.
7. Egundak eta ordu berean pilotalekuari hainbat erabilpen eman behar bazaio, aldeei adostasunera iristea eskatuko zaie, ekintzaren txanda aldatuz. Adostasunera iritsi ezean, Udak Kirol Zerbitzuak ebatziko du egindako eskaeren arabera.
8. Klubetako edo erakundeetako irakasleak, entrenatzaileak eta monitorea dira ikasleen zuzeneko arduradunak, instalazioetara sartzen direnetik irteten diren arte. Ez dituzte ikasleak sekula bakarrik utziko. Klubak edo erakundeak izanen dira erantzule subsidiarioak.

4.4.2.3. Rokodromoa

- 1.- Rokodromoa erabiltzeko eskubidea izanen dute Kirol Instalazioetan abonaturik dauden Zizur Nagusiko herritar guztiek.
- 2.- Kirol Patronatuak ROKODROMOA ERABILTZEKO TXARTELA emanen die “ERABILTZAILE IKASTAROA” egin duten 18 urtez gorakoei soilik.
- 3.- Instalazio hau erabiltzeko, 16 urtez gorakoa izan behar da, eta hori hala dela erakusten duen agiria eraman behar da, edo aipatu baldintzak betetzen dituen norbaitekin joan beharko da.
- 4.- 18 urtez beherakoek 18 urtez gorako norbaitek lagunduta joan beharko dute, eta erabiltzaile txartela eduki beharko du, edo Kirol Patronatuak onetsitako monitoreaekin joan beharko du.
- 5.- Segurtasun arazoak tarteko, rokodromoa beti itxita egonen da. Norbaitek erabili asmo badu, eta aurreko baldintzak betetzen baditu, atezainari eskatu beharko dizkio giltzarrapoan giltzak; betiere, aldez aitzinetik, erabiltzaile txartela entregatu beharko du, eta jarduera horri dagokion fitxa bete beharko du.
- 6.- Rokodromoa erabiltzeko, sokekin segurtatuta egon beharko du, eta bikoteka erabili beharko dute.

7.- Atezainak rokodromoaren erabiltzaileari bereizgarri bat emanen dio, eta halakorik ez duenak rokodromoa ez erabiltzea zainduko du.

8.- Jarduera bukatuta, eta erabiltzaile gehiagorik ez badago, rokodromoa itxi, eta giltzak atezainari itzuliko dizkio. Erabiltzaile gehiagorik badago, eta horiek arauzko bereizgarria izanez gero, horietako edozeini emanen dizkiote giltzak.

9.- Patronatuak erabilgarri duen materiala utziko die rokodromoaren erabiltzaileei atezainak: budriela, mosketoiak, eta abar. Atezainak utzitako materiala fitxa batean jasoko du. Jarduera bukatuta, jaso duen bezala itzuliko dute materiala, edo okerren bat balego, fitxan adieraziko luke.

10.- Kirol Patronatuko programek edo jarduerak izanen dute erabiltzeko lehentasuna.

11.- Rokodromoaren erabiltzaileak erabiltzaile ikastaroan ikasitako arauak betetzeko eta betearazteko, eta rokodromoa beti bikoteka erabiltzeko konpromisoa hartzen du.

Arau horiek ez betetzeak erabiltzaile txartela galtzea ekarriko du.

12.- Urtebetez rokodromoa ez erabiltzeak txartela kentzea, edo segurtasun arauak ahaztu ez direla bermatuko duen proba bat egin behar izatea ekar dezake.

5.- KIROL ZERBITZUAK BIDERATUAK.- KIROL JARDUERETAN PARTE HARTZEN DUENARI ZUZENDUTAKO ARAUAK

5.1.- Instalazioak erresebatzeko eta erabiltzeko arau orokorrak

Artikulu honek eta ondokoek Kirol Patronatuak berak bideratutako jarduera fisikoetan izena emateko jarraitu beharreko arau orokorrak garatzen ditu, bai programazio propioari dagozkionak (aerobic, igeriketa...), bai “Ardoi” Kirol Taldeak programatutakoei dagozkienak (kirol eskolak, ikastaroak, eta abar), baita jarduera horietarako baldintza orokorrak ere.

Patologiarik dagoenean, Kirol Patronatuak, egoki baderitzo, abonatuak egin behar duen kirola egiteko gai dela adieraziko duen mediku txostena eska dezake.

5.2.- Istripu aseguru

1. Kirol Patronatuak antolatutako jardueraren batean izena emateak ez du esan nahi Kirol Istripuetarako Aseguru duenik. Erabiltzaileak hartuko ditu bere gain, kirol lesioa nahiz istripua gertatuz gero, mediku gastuak.

2. Erabiltzaileei, hala nahi dutenei, kirola egiteko gaitasuna dutela bermatuko duen mediku azterketa egiteko, eta istripu aseguru kontratatze aukera emanen zaie.

5.3.- Ekintzak garatzeko aldia

1. Denboraldiko klaseak/ekintzak urriaren lehen hamabostaldian hasiko dira, salbuespenak salbuespen, eta hurrengo urteko maiatzaren azken lanegunean bukatuko dira.
2. Udako ekintzak eta eskolak, oro har, uztailean eta abuztuan emanen dira.

5.4.- Kirol atalen berariazko arauak

5.4.1.- Haurren gaineko erantzukizunak

1. Kirol ataletako irakasleak, entrenatzaileak eta monitorea dira ikasleen zuzeneko arduradunak, instalazioetara sartzen direnetik irteten diren arte. Ez dituzte ikasleak sekula bakarrik utziko. Klubak edo erakundeak izanen dira erantzule subsidiarioak.
2. Ikasleak klasea edo entrenamendua hasi baino 15 minutu lehenago sartuko dira aldageletan. Ezin izanen dira jarduera garatuko den eremuan sartu beren monitorea, entrenatzailea edo irakaslea bertan ez dagoen bitartean.

5.4.2.- Kirol materiala

1. Kirol instalazioen mantentze lanaz arduratzen diren langileek beren gain hartuko dute materiala gainbegiratzea, eta kirol jarduera garatzeko atal bakoitzak beharrezkoa duen materiala ematea.
2. Une horretan jarduera garatzen ari den taldearen arduradunak, beharrezkoa balitz, mantentze lanetako langileei instalazioetako higigarriak mugitzen lagunduko die, eta aipatu materiala egoera eta leku seguruan geratzen dela bermatuko dute.
3. BHIko kiroldegiko pabiloiari dagokionez, atezainak beteko ditu, ez mantentze lanetako langileek, 5.2.2. puntuko 1. eta 2. azpipuntuetan aipatzen diren lanak.

5.4.3.- Publikoa

1. Erabat debekatuta dago entrenatzen ari direnekin etorritakoak edo publikoa entrenamendu eremuetan egotea.
2. Halaber, bertan egon beharko balute, oinetakoetarako zorroak banatuko zaizkie. Kirol Ataletako partaideren batek egindako arau haustea arautegi honetako 6. atalak xedatutakoaren baitan egonen da.

6.- ERABILTZAILEA EDO ABONATUA IZATEARI UZTEA (DIZIPLINA ERREGIMENA)

6.1.- Zioak

Erabiltzaile edo abonatuak izateak berarekin dituen betebeharrak ez betetzeak erabiltzaile edo abonatuak izateari uztea ekar dezake, Arautegi honetan jasotakoaren arabera.

Behar bezala tipifikaturik dauden Estatutuen, Arauen eta Erabakien kontrako egitateak egindako hutsegitearen larritasunaren araberako zigorra jasoko dute.

Hutsegiteak, egitateen garrantziaren eta larritasunaren, hutsegite horien garrantziaren eta ondorioen, eta antzeko beste gertakarien arabera, arinak, larriak edo oso larriak izanen dira.

6.2.- Arau hauste arinak

1. Erabiltzaileak betebeharrakoren bat ez betetzea arau hauste arina izanen da, horrek eragindako ondorioa larritzat jotzen ez denean.
2. Bazkide, erabiltzaile, teknikari, monitore, entrenatzaile, publiko eta instalazioetako langileak iraintzea, horienganako begirune eza, eta behar ez bezalako tratua.
3. Instalazioak eta zerbitzuak oker erabiltzea.
4. Antzeko beste edozein arau haustea.

6.3.- Arau hauste larriak

1. Arintzat jo diren arau hausteak behin baino gehiagotan egitea (3 arau hauste arinek arau hauste larri bat sortuko dute).
2. Instalazioan, materialean edo ekipamenduan nahita kalte arinak egitea.
3. Arduragabekeriak edo axolagabekeriak jokatzearen ondorioz, nor bere buruari edo besteei istripu larriak eragitea.
4. Instalazioen barnean jarduerak normaltasunez garatzea oztopatuko edo galaraziko duten egitateak.
5. Instalazioen interes orokorreko jarduera edo hutsegite desleial edo aurkakoak, nahiz instalazioei kalte eragin diezaieketenak.
6. Jabetzaren aurkako hutsegiteak edo delituak.
7. Bestelako antzeko arau haustea, edo arau hauste berdina.
8. Instalazioetara okerreko lekutik sartzea.

Patronatuaren Batzordeak beretzat gordetzen du aipatu arrazoi horiek oso larritzat jotzeko eskubidea, egitateen garrantziari erreparatuta.

6.4.- Arau hauste oso larriak

1. Larritzat jo diren arau hauste bat baino gehiago egitea.
2. Ezarritako zigorra ez betetzea.
3. Instalazioetan, materialean nahiz instalazioko ekipamenduan nahita kalte larriak eragitea.
4. Instalazioetan jarduerak normaltasunez garatzea zaildu edo galaraziko duten egitateak.
5. Instalazioen interes orokorrekiko jarduera edo hutsegite desleial edo aurkakoak, nahiz instalazioei kalte eragin diezaieketenak.
6. Jabetzaren aurkako hutsegiteak edo delituak.
7. Beste norbaiti instalazioetan sartzeko identifikazioa uztea, baita nortasunari, adinari, osasun egoerari eta beste hainbat alderdiri buruzko datuak nahita faltsutzea, eta identitatea faltsutzea ere.
8. Instalazioetan liskarretan, desordenatan, iskanbiletan eta sesioetan parte hartzea edo halakoak eragitea.
9. Instalazioetan drogak hartzea eta horiekin trafikatzeta, eta mozkortzea.
10. Antzeko beste edozein arau hauste, edo berdina.
11. Kalte material nahiz pertsonalak eraginda, instalazioetan arauz kanpo sartzeta.

6.5.- Zigorrak ezartzea.

Zigorrak larritasun mailaren arabera ezarriko dira. Honenbestez:

- Arau hauste arinengatik ezarriko diren zigorrak kirol instalazioetako langileek ezarriko dituzte, lehenengo eta behin. Langileek 48-72 orduz kendu ahal izanen diete arau hausleei abonatu txartela. Erabiltzaileari hartutako neurriaren zergatiaren berri emanen diote, eta, halaber, egindako arau haustearen berri kirol zerbitzuari emanen diote. Azken honek erabakiko du 6.6 puntuari atxiki behar zaion ala ez. Arau hauslea adin txikikoa bada, Kirol Zerbitzuaren koordinatzaileak zigor pedagogikoak ezartzea baloratuko du. Arau haustea antzeman duen pertsona baimenduak bere gain hartuko du zigorraren segimendua egitea.

- Arau hauste larriengatik ezarriko diren zigorrak kirol zerbitzuaren koordinatzaileak ezarriko ditu. Honen eskumena izanen da:

Ezarriko dituen zigorrak eta ekintzak gainditu arte abonatuari txartela kentzea.
Diziplinako espedientea irekitzea.

Arau hauste oso larriengatik ezarriko diren zigorrak “Ardoi” Kirol Patronatuak ezarriko ditu. Honen eskumena izanen da:

- Abonatu txartela behin betirako kentzea.
- Diziplinako espedientea irekitzea.
- Neurri eta prozedura judizialak ezartzea.

6.6.- Ondorioak

Arau hausteak zigortzeko honako hauek hartuko dira kontuan: larritasuna eta araua hautsi duenaren erru maila, arau haustea nahita egin den ala ez, arau hauslearen adina eta gaitasuna, behin eta berriro egin izana, eta bestelako gertaera larrigarriak edo aringarriak.

Arau hausteak, kalifikazioaren arabera, honela zigortuko dira:

_ Arau hauste arinak: idatziz ohartaraziko zaio, edo instalazioetan sartzea, erabiltzea edo haiez gozatzea ukatuko zaio 1etik 30 egunera bitartean.

_ Arau hauste larriak: instalazioetan sartzea, erabiltzea edo haiez gozatzea ukatuko zaio 30etik 180 egunera bitartean.

_ Arau hauste oso larriak: abonatu edo erabiltzaile eskubideak bertan behera geldituko dira 180 egunetik 2 urtera bitartean..

Arau hauslearen erruduntasun maila eta arau haustearen larritasun maila edozein izanda ere, arau hausleak, edo, hala badagokio, horren tutoreak, sortutako kalte guztiak konpondu beharko ditu, horretarako beharrezkoa den konpentsazio ekonomikoa eginez.

6.7.- Arau hausteak iraingitzea eta preskribatzea

6.7.1.- Arau hausteengatik sortutako erantzukizuna honela iraingiko dira:

- a. Zigorra beteta.
- b. Arau haustea preskribatuta.
- c. Zigorrak preskribatuta.
- d. Arau hauslearen heriotzagatik.
- e. Ezarritako helegiteak hala ebatzita, zigorra altxatzen denean.

6.7.2.- Arau hausteak preskribatzea

Arau hauste arinak gertatu eta bi hilabetera preskribatuko dira, larriak sei hilabetera, eta oso larriak urtebetera.

Preskripziorako aldia eten eginen da zigor espedientea abiaraztea erabakitzen denean. Preskripzio epea berriro ere abian paratuko da baldin eta espedientea bi hiletik gora geldituta badago.

6.8.- Prozedura

Arintzat nahiz larrizat jo daitekeen arau haustea egin dela jakin bezain laster, Patronatuaren Batzordeak edo honek izendatutako pertsonak espedientea ebatziko du (hasiera batean instalazioko langileek esku hartu badute ere); betiere, aldez aitzin, interesdunak, edo adinez txikia bada, horren tutoreak esan beharrekoa entzun eta gero.

Egindako arau haustea oso larrizat jo daitekeenean, Patronatuaren Batzordeak espedientea abian paratzeko erabakia hartuko du, gertakariak argitze aldera, eta erantzukizunak ezartze aldera. Horretarako instruktore bat eta idazkari bat izendatuko ditu. Gertakariak egozten zaizkion interesdunari espedientearen berri emanen diote, eta honek esan behar dituenak entzungo dizkiote. Halaber, egindako izendapenen berri emanen diote.

Izapideak eginda, Ardoi Kirol Patronatuaren Zuzendaritza Batzordeak, espedientetik ondorioztatutakoaren arabera, hartu beharreko erabakia hartuko du. Aipatu erabakia idatziz jakinaraziko zaio interesdunari. Zigorra epaia irmotasunez hartu eta hurrengo egunetik beretik hasiko da betetzen.

Egindako arau hauste mota, zein egoeratan egin den, eta izan ditzakeen kalifikazioa eta zigorra kontuan hartuta, Zuzendaritza Batzordeak, espedientea bideratzen den bitartean, espedientea ireki zaion abonatua edo erabiltzailea instalazioetara ezin sartu, horiek ezin erabili eta horiez ezin gozatu ahal izatea, edo abonatu gisa eskubide guztiak bertan behera uztea erabakitzeko eskumena izanen du.

Ardoi Kirol Patronatuaren Zuzendaritza Batzordeak, edo horrek izendatutako pertsonak, ezarritako zigor guztiei berrezartzeko errekurtsua ezar dakieke Zuzendaritza Batzordearen aitzinean. Horretarako, hamar laneguneko epea izanen da.

Zigorak arau hauste larriengatik edo oso larriengatik ezarri badira, eta aldez aurreko eta nahitaezko berrezartzeko errekurtsua atzera bota bada, Udalbatzak eginen duen lehenengo bilkuran (ohikoa nahiz ezohikoa) gora jotzeko errekurtsua jartzeko eskubidea izanen du. Aipatu gora jotzeko errekurtsua, berrezartzeko errekurtsua atzera bota dela jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita 30 eguneko epean jarri beharko da.

7.- XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehena.- Zizur Nagusiko Kirol Instalazioen erabilpenei eta funtzionamenduari buruz Arautegi honetan jasotako arau guztiak nahitaez bete beharko dira, baita gerora eman daitezkeen arau berriak ere.

Bigarrena.- Kirol Atalek, egoki baderitzote, horien kargura dagoen/dauden arau hauslea edo arau hausleak zigor de(it)zakete; betiere, Ardoi Kirol Patronatuaren Batzordeak ezarritako zigorraren osagarri gisa, inoiz ez azken horren zigorra ordezkatzeko.

8.- AZKEN XEDAPENA

Arautegia hau onartu eta argitara emateko izapideak beteta sartuko da indarrean. Arautegiaren ale bat kirol instalazio guztietan jarriko da ikusgai.

ESPAZIOAK LAGATZEA

Ardoi Kirol Patronatua, Zizur Nagusiko Udalaren kirol instalazioen kudeatzailea, erakunde publikoa da, eta mota guztietako kudeaketak eta xedapenak egiteko gaitasun juridiko osoa du. Horretarako muga bakarra indarrean dagoen legeria eta Patronatuaren beraren estatutuak dira.

Horrela, Patronatuaren Batzordeak eta honen lehendakariak beren espazioak laga diezazkiekete erakunde publiko nahiz pribatuei unean uneko kirol nahiz kultur ikuskizunak antolatzeko, eta epe luzeagorako Instalazioetako ikasle abonatuekin kirol jarduerak edo diziplinak garatzeko; betiere, aipatu jarduera edo diziplina horiek Kirol Patronatuak berezkoak dituen jardueren garapen normalari eragozpenik sortzen ez badiete. Azken hori dela eta, unean uneko erabilpena eta erabiltzen luzeagokoa erregulatuko duen arautegia ezartzea ezinbestekoa izanen da. Bi lagapen horiek Udalak urtean urteko jardueren gastuei aurre egiteko ezarria duen kostua, edo Patronatuak berak onartuak dituen fidantzak ordainduta egingen dira.

Arautegi honetan jasotako instalazioak erabiltzeko, erabili asmo duenak aldeztu idazkia aurkeztu beharko du baimena jasotzeko. Aipatu idazkian honako hauen berri emanen da: eskaeraren helburua, garatuko edo emanen den jardueraren deskribapena, aurreikusitako partaide kopurua, abonatuak jarduera hori doakoa izanen duen, eta, ahala ez bada, jardueran parte hartuko dutenek ordaindu beharko dutena. Instalazioak erabiliko dira soilik Patronatuak berezkoak dituen jardueren garapen normalari eragozpenik sortzen ez diotenean. Patronatuak beretzat gordetzen du hitzartutako kontratua bertan behera uzteko eskubidea, salbuespenezko zirkunstantziengatik kontratatutako espazioa bere ekintza propioak garatzeko beharrezkoa duenean. Halakorik gertatuz gero, horren berri erreserba egin zen data baino 10 lanegun lehenago emanen zaio kontratudunari.

Kirol gune bakoitzak bere lagapen arautegia izanen du.

Udalak (instalazioen jabe den aldetik) eta honen Patronatuek % 100a salbuetsita dute soilik lagapen kontzeptuari dagokionez.

Jaiegunetan, eta lagapena doakoa bada, atezaintzako, jagoletzako eta garbitasuneko langileen gastuak ordaindu beharko dira.

Kontratua beteko dela bermatzeko, ezarritako kopuruaren % 100eko fidantza ordainduko zaio Kirol Patronatuari. **Aipatu fidantza denei eskatuko zaie. Alabaina, lagapena eskatu duen erakundeak ordainketa horretatik salbuetsita badago, legokiokeenaren % 10a ordaindu beharko du; ekitaldia bukatuta kopuru hori itzuliko zaio. Fidantzak honako hauek estaliko ditu:**

a) Eskatzaileak araututakoa ez betetzea. Halakoetan, eskatzaileak lokalak eta instalazioak erabili behar ez baditu, eta gutxienez 10 egun lehenago horren berri ematen ez badu, ez du dirua itzul dakion eskubiderik izanen.

b) Instalazioko geletan edo materialean sor lezaketen edozein kalte.

Pilotalekua lagatzea: gune hori ez zaie lagako partikularrei, abonatuari eta erakundeei, baina taldeek, elkarteek, klubek edo atalek eska dezakete; betiere, eskaera Udaleko dagokion departamentuaren bitartez bideratzen bada. Erabilerak diru sarrerek sortuko balitu, edo programatutako ekitaldiak alde aitzineko prestakuntza edo garbiketa behar balu, edo antolatutako jarduerak instalazioa edo bertako ekipamendua honda balezake, Patronatuak beste kirol gune batean antola daitekeen antzeko jarduerari dagokion gastua ordaintzea, edo, halakorik ezean, fidantza bat ordaintzea eska dezake.

Gimnasioak lagatzea: gune hori instalazioetako abonatuarekin kirol jarduerak garatu nahi dituzten erakundeei, elkartei edo partikularrei soilik lagako zaie; betiere, partaideen kopuruak eta aipatu jardueretan parte hartzeagatik ordaindu beharreko kuotak kirol zerbitzuaren onespena badute. Interesdunak eskaera orria beteko du, eta alde aitzin hitzartutako jarduerari dagozkion gastuak ordainduko ditu. Jardueragatik ordaindu beharreko gastuak pabiloiaren alokairuaren 1/3a izanen dira.

Pabiloia lagatzea: jarduerari dagozkion gastuak ordaindu gabe pista gordetzeko, nahitaezkoa izanen da erabiltzaileen % 75a, gutxienez, abonatu izatea, eta hala dela egiaztatzeko, lehiaketetan parte hartzen duten taldeei dagokienez, federazio fitxa erakutsi beharko dute. Lehiaketetan parte hartzen ez duten taldeei dagokienez, berriz, abonatu txartelaren fotokopia eta baimen sinadura erakutsi beharko dute. Azken balizko horretan, abonatuak ez direnek jokalekura sartzen diren bakoitzean dagokien sarrera ordainduko dute. Abonatuaren ehunekoa % 75etik beherakoa balitz, eskatzaileak gunea alokatzeari dagozkion jarduerari gastuak ordaindu beharko ditu, partaideen artean abonatuak egonagatik ere.

Talde bakoitzak talde aurkariengatik eta epaileengatik jarduerari gastuak ordainduko ditu jokaturako partida bakoitzeko. Hartarako, fidantza ordaindu izanaren ziurtagiria erakutsiko du. Fidantza honela kalkulatu da: joka daitezkeen partiden kostuaren gehi abonatu ez diren jokalarien fitxen batukaririk geratuko den kopurua bider partida bakoitzeko finkaturako kopurua gehi % 10a ezustekoetarako; kopuru horretatik partidak eta abonatu ez direnen parte hartzea kenduko da, eta denboraldiaren amaieran hondarra itzuliko zaie, itzultzea badagokie.

Futbol zelaia lagatzea: jarduerari dagozkion gastuak ordaindu gabe futbol zelaia gordetzeko, nahitaezkoa izanen da erabiltzaileen % 75a, gutxienez, abonatu izatea (lehiaketetan parte hartzen duten taldeei dagokienez, federazio fitxa erakutsi beharko dute). Abonatuaren ehunekoa % 75etik beherakoa balitz, eskatzaileak gunea alokatzeari dagozkion jarduerari gastuak ordaindu beharko ditu, partaideen artean abonatuak egonagatik ere.

Eskatzaileek (% 75ean instalazioko abonatuak izanik) antolatutako jarduerarekin diru sarrerarik lortuz gero, hitzartutako tarifak ezar dakizkieke.

PROZEDURA

Jarduerari dagokion eskaera aurkeztuko da kirol zerbitzuaren bulegoetan. Eskaerarekin batera, arautegian jasota dauden datu guztiak emanen dira. Eskaera jasota, kirol zerbitzuak laga beharreko guneak erabilgarri ote dauden kontsultatuko du. Ondoren, erabakiaren berri emanen die eskatzaileei, Kirol Patronatuak onartutako tarifaren arabera ordaindu beharreko zenbatekoaren aurrekontuarekin batera.

Eskaera egin duen erakundeari lagapen baldintzak eta igorritako aurrekontua onartzen dituela baieztatzea eskatuko zaio. Baieztapena gauzatzeko, hitzartutako kopurua ordainduko da berehala.

Instalazioak erabiltze aldera ezarritako kopuruaren ordainketa ezin zatikatuko da, eta kontratua sinatzean ordaindu beharko da, ekitaldia garatu aitzinetik. Ordainketa bi modutara egin daiteke: txartela bidez Kirol Zerbitzuan berean, edo Kirol Zerbitzuan hitzartutako kopurua Patronatuaren kontuan sartu dela egiaztatzen duen ziurtagiria emanez.

Programatutako jarduera gauzaten ez bada, ordaindutakoa itzul daiteke; betiere, afera horren berri Kirol Zerbitzuari ematen bazaio, jarduera data baino hirurogeita hamabi ordu lehenago, gutxienez.